

Zarautz, 2001.eko abenduaren 21ean

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,
H. Knörr, buruordea,
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana Martija, diruzaina,
B. Oihartzabal, Iker sailburua,
A. Urrutia, Jagon sailburua,
P. Charriton,
J. L. Davant,
A. Eguzkitza,
A. Iñigo,
X. Kintana,
E. Larre,
J. M. Lekuona,
F. Ondarra,
Tx. Peillen,
J. San Martin,
Eta J.M. Satrustegi
euskaltzainak
eta J. L. Lizundia idazkariorde-
-kudeatzailea eta
J. J. Zearreta, ekonomia eragilea

Zarautzen, Trinkete-Gaztelekuan, abenduaren 21ean, elkartu da Euskaltzaindia hileroko batzarra egiteko. Bilkurari goizeko hamarretan eman zaio hasiera. Ezkerreko zutabean jasotzen dira bildu diren euskaltzainen izenak. Ezin etorria adierazi dute

Aurreko batzar-agiria onartzea

Oharrik ez da izan eta, beraz, dagoen dagoenean onartu da joan den hileko batzar agiria.

Euskaltzainburuaren hitzak

Euskaltzainburuak zenbait gertaeraren berri eman du: Kintana jaunak bihotzkoa izan duela. Lehenbailehen osatzea opa dio Euskaltzaindiak.

BBK sariak ere banatu ditu Euskaltzaindiak. Sarituak helduago batez (Patxi Ezkiaga) gainera, hiru gazte izan dira (Alaitz Olaizola, Sonia Gonzalez eta Jurgi Kintana, Xabier Kintanaren semea, hain zuzen).

San Martin jaunak ere saria izan du Durangoko azokan. Honi ere zorionak eman dizkio euskaltzain guztien izenean.

Nafarroako Gobernuak 2001. urteko protokoloari ezarritako aldaketak jasotzen dituen dokumentuaz

Nafar gobernuko Unibertsitate eta Hizkuntza Politikako Zuzendariak Euskaltzaindiarekin hitzarmena duten gainerako herri aginteei bidalitako testu proposamena jaso du Euskaltzaindiak Eusko Jaurlaritzatik igorria. Nafar Gobernuak oraindik sinatzeke duen 2001. urteko eranskinari gehitu beharrekoak jasotzen dira testu horretan. Zenbait punturekin ezin ados egon eta bilera bat eskatu zaio Pegenaute jaunari, argitasunak eskatzeko eta Euskaltzaindiaren jarrera agertzeko. Hilaren 27rako eman du hitzordua. Baina datorren urteko dirulaguntzak bideratu nahi badira, eta kontuan izanik eskuratu den idazkian etorkizunari begira hitzarmen berri bat iragartzen dela, gauzak hilaren 26rako argiturik izatea beharrezkoa du Eusko Jaurlaritzak. Hala eman zaio adi-

tzera Euskaltzaindiari. Dokumentua irakurri eta aztertu da. Urrutia jaunaren arabera, argi izan behar da tartean dagoena ez dela subentzio bat hitzarmen bat baizik. Ezin da sinatu: dagoen bezala onartuz gero, Euskaltzaindiak eskuak lotuak izango lituzke gero. Beñat Oihartzabalen ustez, Atlasaren argitalpena dela eta, Euskaltzaindiaren aurreko gutunean erantzun anbigua ematen zen eta anbiguotasun horretatik lehenbailehen atera behar da.

Luze joan da eztabaida. Hizkuntza atlasean separata bat egitea ez da oso txukuna, gauzak ezin baitira banatu eta bereizi. Alemanarentzat, frantsesarentzat eta abarrentzat egindako atlasen adibidea erakutsi behar litzaeke.

Testu zirriborro bat prestatzeko agindua eman zaie Urrutia, Iñigo eta Lizundia jaunei, geroago onartuko dena.

Hiztegi Batua: prozedura erabakitzea

Ondoren, *Hiztegi Batua* lantzen jarraitu ahal izateko finkatu beharreko prozedura eztabaidatzeari ekin zaio. Aurreko bilkuran zuzendaritzaren izenean aurkeztutako testua onartu gabe geratu zen eta oharrak egiteko aukera zabalik utzi. Horren ondorioz, Beñat Oihartzabalek, Miren Azkaratek, Patxi Goenagak, Andres Urrutiak eta Patxi Zabaletak beren proposamenak helarazi dituzte. Nonbaitetik hasi behar eta Oihartzabal jaunari eman zaio hitza bere testua aurkezteko. «Euskara batuko batzordeaz eta haren bazterteaz» izeneko gogoeta irakurri du.

Ondoren, euskaltzainburuak eskatu du proposamenak osorik irakurri beharrean laburpenak edo egitea. Urrutia jauna ez da ados. Zabaleta jaunaren proposamena osotazuzeneko zuzenketa denez, osorik irakur dadila eskatzen du.

Salaburu jaunak prozedura argitu beharra ikusten du: testu desberdinak irakurtzeko aukera denek izan dute. Finka bitez, hortaz, arazo nagusiak eta ikusi zein den hobeakien egokitzen dena.

Zabaleta jaunak bere proposamena laburtu du, gauzarik garrantzitsuenak bilduz.

Ondoren, Patxi Goenagak egin du bere proposamenaren aurkezpena, Miren Azkaratek igorritakoa bera, funtsean.

Gero Andres Urrutiaren proposamena irakurri da.

Argitasunak eskatu eta eman dira, alde batetik eta bestetik.

Ordu bat eta erdietan Zarauzko alkate andrearen bisita izan du Euskaltzaindiak. Agurren ondoren, Miren Azkarate andreak azaldu du bere proposamena. Berak Lekeition onartua nola interpretatzen duen azaldu du: prozedura zen proba gisa uzten zena, ez Euskara Batuko Batzordea bera.

Arana jaunak uste du, bost proposamen daudenez, bueltaka ibili beharrean, batzordeño bat osatu beharko litzatekeela testuak adosteko. Miren Azkaratek erantzun dio esanaz funtsean bi proposamen daudela eta bost dokumentu. Ez dago batzordeño beharrik. Eztabaida litekeena honako hau da: 1) Euskara Batuko Batzordeak jarraituko du ala ez? Ezezkia erabakitzen bada, Lekeitiokoa hankaz gora botatzea litzateke. 2) Hiztegi Batuko Lantaldearen zerrendak zuzenean iritsiko dira bilkura ala galbahe bat igaro ondoren? 3) Oharrak egin ondoren, zer bide eramane behar da ohar horien ezta-

baidan. Hirugarren honetan Urrutiaren, Goenagaren eta Azkarateren testuak bat omen datoz funtsean.

Eztabaida ordu bi eta erdietan eten da bazkaltzera joateko.

Lau t'erdietan hasi da berriro bilera. Gaiaz aski eztabaidatu delakoan, bozketa nola eta zertaz egin jarri da mahai gainean.

Euskaltzainburuak esan du Euskara Batuko Batzorde bat badela eta oraindik ez dela entzun. Horrenbestez, Salaburu jaunari eman dio hitza. Honek Gramatika Batzordean egindako lanei buruz hitz egin du eta nolako eskaintza izan zuen batzorde horretan lanean hasteko. Bestalde, Hiztegi Batuko lanetan ere parte hartu nahi duela. Euskaltzainek beti izan dutela lehenasuna holako lanetarako. Zenbaitek zalantza erakutsi du Hiztegi Batuko koordinatze lan hau hain eginkizun handietan ibili denaren esku uztea zenbateraino ote litzatekeen irteera jator bat, zenbateraino izan litekeen Miren Azkaratek egindako lanari jarraipena emateko gauza. Miren Azkaratek dio zalantzak ulertzen dituela, baina Pello Salabururi akademiarako lan honen eta beste baten artean aukera ematen bazaio, akademiaren aldekoa hautatuko duela. Salaburuk hartuko balu lan hau bera oso lasai egongo litzatekeela.

Azkenean, botatzeko beharra ikusi da. Zabaleta jaunak bere proposamena bozkatea eskatu du, bere testuko 3. orrialdea bereziki. Hala egin da eta honako emaitza izan da: Patxi Zabaletaren testuaren aldekoak 9 boto izan dira. Kontrakoak, 10. Zuri, bat. Beraz, ez da onartu.

Bigarren bozketa bat egin da ondoren. Hau isilpekoa. Euskara Batuko Batzordeari eutsi, Lekeition onartutakoaren arabera, batzorde horretako buruak, Pello Salaburuk alegia, orain arte idazkariak egiten zuen lana bere gain hartuz. Hau izan da bozketaren emaitza: Hogeita bi boto emaila izanik, 13-k baietz esan dute eta 9-k ezetz. Beraz, lehengo egiturari eustea onartu da, Salaburuk hartuko duelarik, batzordeburu gisa, Azkarateren lekukoa. Oharrak egiteko, eta erabakitzeko prozedurari buruzko xehetasunak hurrengoan onartuko dira. Idazkariak egingo du testu bien batuketa eta akterekin batera igorriko. Hurrengo bileran, bospasei minututan, ontzat emateko modukoa izan liteke.

Eskuarteak:

EGO Euskal Gramatika proiektu berria

Patxi Goenagak eman du laburki Gramatika Batzordeak prestatutako proiektuaren berri. Aspalditik datorren zerbait dela esan du. Orain arte gauzatu ez bada, neurri handi batean batzordeak lan hori bideratzeko prest legekeen pertsonarik aurkitu ez delako izan da. Gramatika Batzordeak Pello Salabururi eskaini diola lan hori. Hau prest dagoela, lehenaz gain, lan hau hartzeko. Unibertsitate ere prest dagoela behar diren erraztasunak emateko eta Hezkuntza Sailean ere ordezkapena ordaintzeko prest direla. Bost urteko lana iragartzen da eta epe horren amaieran Euskaltzaindiak eskuetan izan lezake bere Euskal Gramatika Orokorra edo litzatekeena. Horretarako, ohiko batzorde-lanaz gainera, beste pare bat ikerlariren beharra iragartzen du proiektuak, orain arteko lana berriz aztertzeke, osatzeko, zabaltzeko eta egokitzeko. Proiektuan jasotzen diren giza baliabideekin batzordeak egingarri ikusten du proiektua. Zuzendaritzak oniritzia eman dio egitasmoari, beti ere behar dituzkeen diru baliabideak ziurtatuak di-

ren heinean, eta euskaltzainei ere aurkeztu zaie berek ere onar dezaten. Hala eman da ontzat Gramatika Batzordearen EGO proiektua. Euskaltzainburuak Goenaga jaunari eskatu dio jarrai dezala bai Euskal Herriko Unibertsitatean egin beharrekoak bideratzen, Pello Salaburuk Euskaltzaindiarentzat lan egin dezan, bai Eusko Jaurlaritzarekikoak, agindutako laguntzak gauza daitezzen. Arana jaunari, berriz, proiektuan interesa erakutsi lezaketen banketxeetatik etor litezkeen diru laguntzen jarraipena egin dezala.

Literatura ikerketa batzordeko egitasmoa

Batzordeburu den Joan Mari Lekuona jaunak batzordearen lanen eta asmoen berri eman du. Hezkuntza sailak Lourdes Otaegi andrea, batzorde idazkaria, lan-jardunaldi erdirako liberatu du batzorde lanetan aritzeko. Hain zuzen, ikasturte honetan eta datozen beste bietan gauzatuko den lanaren berri ematen da txostenean. Lanaren azken helburua, hain zuzen, literatura hiztegia moldatzea da eta helburu horri begira eskatu da Otaegi andrearen liberazioa.

Deustuko Unibertsitatearekiko hitzarmena

Abenduaren 20an sinatu da Deustuko Unibertsitatearen eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena ere. Honek zenbait lankidetzeta eta argitalpen bideratzeko aukera eskaintzen du.

2002ko egutegia

Jose Luis Lizundiak aurkeztu du datorren urteko egutegia, punturik nabarmenena azpimarratuz. Ontzat eman da.

Azken ordukoak:

Coseriu-ren 80 urteak

E. Coseriu hizkuntzalari ospetsuak 80 urte bete dituelarik egoki ikusi da Euskaltzaindiak zorionak ematea gutun baten bidez. Knörr jaunak idatzi du testua.

Azkenik, Nafarroako Gobernuari egin beharreko gutunaren testua aurkeztu da. Zirriborroa eztabaidatu da eta behin betiko testua Andres Urrutiaren, Andres Iñigoren eta Jose Luis Lizundiaren artean prestatuko dute eta hilaren 27an bisita egingo diote Pegnate jaunari.

Eta zazpiak laurden gutxitan amaitutzat eman da bilera.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga